

GEHIAGO IZAN, GEHIAGO EGITEKO BIDEAN AURRERA

ehbildu

Orereta/Errenteria

2023ko udal hauteskundeetarako herri programa

HERRI DUINAGOA

Zaintzaileagoa

Aldakoenea auzo etxea, udala goiko auzoetara gerturatzeko

Aldakoenea eraikinean, ZU zerbitzuaren arreta-bulego berri bat jarriko da eta, horrekin batera, gizarte zerbitzuen bulegoa ere bai. Proiektu honen xedea, udala herritarrengana gerturatzean datza, herritarrek errazago jo dezaten hurbilekoena zaien administraziora.

Fini Rubio egoitza, adinekoentzat etxebizitza dotazionalak

Bakarrik bizi nahi ez duten adinekoi bizimodu duinak bermatzeko tresna izan nahi du Fini Rubio, adinekoentzako etxebizitza dotazionalak eskainiko dituen eraikinak. Adinekoen autonomia eta euren arteko harremanen sustapena izango ditu xede. Egungo Oarso eraikina bihurtuko da Fini Rubio eraikina, behin handitu, birgaitu eta egokituta.

Hautatua ez den adinekoen bakardadeari aurre egiteko estrategiaren hedapena

Hautatua ez den bakardadea bizimodu duinak garatzeko traba handia da. Harremanek eta komunitatearen parte sentitzeak, berriz, bizitza duinagoak ahalbidetzen dizkigute. Horregatik, pandemian abiatu zen eta ondoren ere garatu den proiektu pilotuarekin jarraituz, strategiaren hedapena landuko da datozen lau urteetan.

Markolako auzo etxea, inklusioan ardaztua

Eskolaren eraikina, auzotarrentzako topaleku izateaz gainera, eragileentzako aurreikusitako eremuan, topaleku espezifikoa izango da inklusioa sustatzen duten eragileentzako, Kokapena partekatzeak euren arteko sinergiak eta lankidetzak sor daitezkeen baldintzak hobetuko ditu, inklusioaren aldeko baliabide eta dinamiketan eragin biderkatzailea lortuz.

Osasun mentalaren prebentziorako programa lantzea

Buru-osasunaren arazoa geroz eta hedatuago dago gure gizartean. Honen aurkako borroka eskatzen du fokoa prebentzioran jartzea eta, horretarako, udal-programa bat landuko dugu, herrian ditugun esparruko eragileekin lankidetzan eta gazteen errealitate espezifikoa arreta berezia jarriko duena.

HERRI DUINAGOA

Berdinzaleagoa

Indarkeria matxistaren ardura izango duten agenteen sorrera

Udaltzaingoaren baitan indarkeria matxistaren auzia modu espezifikoan eta ikuspegi feministarekin landuko duten agente zehatzen figurak sortuko ditugu.

Emakumeen Etxearen zabalpena

Emakumeen Etxearen espazioa zabalduko da bertan eskaintzen diren zerbitzuak hobeto eman eta ekintza gehiagotarako aukera eman dezan. Horretarako gaur egungo espazio erabilgarriari espazio gehiago egokituko zaio.

Berdintasun politiken deszentralizazioa

Berdintasun politikak eta dinamikak Emakumeen Etxean garatzeaz gain, horiek deszentralizatu eta auzoetara gerturatuko dira. Horretarako, Emakumeen Etxe ibiltariaren dinamika abiatuako da, Emakumeen Etxearen programazioa auzoetara eramanez.

Erasorik gabeko jaien inguruko lanketa integrala

Inolako erasorik gabeko Madalenen inguruko lanketa urte guztira eta herrian ospatzen diren jai guztietera zabalduko da. Jaien testuinguruan Inolako erasorik gerta ez dadin lanketa sendotuko da horrela.

LGTBIQ+ pertsonen diskriminazio egoeren behatokia

LGTBIQ+ pertsonak pairatzen dituzten diskriminazio egoerak jaso eta horiei erantzun hobea emateko behatokia sortuko dugu, errealitatea ongi ezagutzea ezinbestekoa baita eremu honetan egiten diren politika publikoetan aurrera egiteko. LGTBIQ+ mugimenduaren eta udalaren arteko elkarlaneko dinamikan pauso bat gehiago egin nahi dugu aurrera.

Azpikontrataturako zerbitzu feminizatuen publikazio-prozesua abiatzea

Gaur egun azpikontrataturak dauden zerbitzuen publikazio-aukerak aztertuko ditugu, publikazio-prozesua diseinatu eta feminizatuta dagoen arloen publikazioa abiatzeko.

HERRI DUINAGOA

Inklusiboagoa

Etxebizitza sozial gehiago

Esnabide, Altzate eta Gamongoako garapen berriak baliatuko ditugu etxebizitza soziala eraikitzeko, garapen berri guztietan sarrera baxueneko tartean kokatzen diren pertsona eta familiei alokairu babesturako sarbidea bermatzeko. Etxebizitza eskuratzeko zailtasun gehien dutenei, besteak beste, gazteei, emantzipazipatzea ahalbidetu nahi diegu.

Progesibitate fiskalean sakondu

Azken legegintzaldian urratutako bidean pauso gehiago eman nahi ditugu. Modu pilotuan abiatutako tasetan kontsolidatzeaz gainera, bestelako udal-tasa edo dirulaguntzetan ere progresibitatezko pausoak eman nahi ditugu, eskuragarritasuna unibertsala erdingunean jarriz, zerbitzu publikoak jasotzeagatik ordaintzen duguna norberaren erralitatearen arabera izan dezan.

Wifi publikoa auzo eta ekipamendu guztietara hedatzea

Internetera sarbidea egun oinarrizko premia da eta irisgarritasuna bermatu beharra dago. Horregatik, herritar guztiei sarbidea bermatzeari begira, wifi publikoa auzo eta udal ekipamendu guztietara hedatuko da, agintaldi honetan egindako lanari segida emanez.

Harrera bulegoa ikasle eta familia etorri berrientzat

Herrira bizitzera iritsi berriak diren famalientzat, tartean eskolaratzeko adina duten haurrak edo gaztetxoak direnean, harrera-bulegoa sortuko da, agintaldi honetan martxan jarri den esperientzia pilotuari segida emanez. Etorri berriei herrian eta herrian dauden zerbitzu eta ekipamenduetan kokatzeko lagungarri izan nahi du, herrian txertatzeko bidea erraztuz, baita premiak daudenean eskura dituzten zerbitzuetan deribazioak eginez ere.

Lehen mailako higiene produktuetara sarbidea erreztea

Bizitza duinak garatzeko, lehen mailako osasun produktuetara sarbidea izatea funtsezkoa da. Beharrak bizi-etaparen eta generoaren arabera desberdinak izan arren, bizitzaren une desberdinetan presentea daude. Behar horiei erantzun eta erabil daitezkeen produktuen inguruko pedagogia egiteko proiektu bat garatuko dugu.

Euskaltegietan lehen urratsetan doakotasuna (A1 eta A2)

Euskara ikastea oinarrizko eskubide bat izan dadin, euskaltegietako lehen urratsetan doakotasuna bermatuko dugu. Euskara ikasteko bidean inork trabarik izan ez dezan nahi dugu.

HERRI KOHESIONATUAGOA

Ekipamendu gehiagorekin

Ondartxoko auzo-ekipamendua

Ondartxoko hiltegia birgaitzeak, eremu guztia biziberritzen lagunduko du. Eta hiltegiaren zatirik handiena Hibaikak erabil dezan eta, beraz, ur-kirolekin lotuta egon dadin aurreikusten bada ere, eraikinaren zati bat auzo-etxe izan dadin aurreikusita dago. Ideia da Iztietako-Ondartxoko, zein inguruko bizilagunei zuzendutako espazio komunitario bat martxan jartzea, bereziki, 0-6 urte bitarteko haurrak dituzten familiei.

Soinuaren eta musikaren etxea Altzaten

Herrian dugun kantu eta koru-tradizioak merezi du ongi egokitutako etxea. Kantuarekin eta musikarekin lotuta herrian ditugun eragileentzako espazio partekatua izango da, ongi hornitua, sinergiak bilatuko dituena. Besteak beste gazteen musika taldeentzako entsegutarako ere balioko duena. Altzaten aurreikusita dagoen partzela eraikigarria baliatuko da horretarako. Diseinua bertan egoitza izango duten eragileekin landuko da.

Ikastetxe publikoetako eraikinetan eta jolas-eremuetan hobekuntzak

Eraikinen eta oro har, eskola-espazioen egoera ona bermatzea eta hobekuntzak egitea udalaren eskumena den neurrian, ikastetxeen beraien behar eta proposamenetatik abiatuta, agintaldian egin beharreko esku-hartzeekin plangintza landu eta egikaritutako dugu.

Liburutegi zerbitzua deszentralizatzea, Markolara eta Beraunera

Markola eta Beraungo ikastetxeetan liburutegi gisa antolatuta dauden espazioak eskolaren ordutegiaz harago eta auzora zabalduko dira. Herrian bertan zein EAE mailan liburutegien sarera lotuta egongo diren liburutegiak izango dira. Sarbidea erraztea eta irakurtzeko/ikasteko espazioa eskaintzea da xedea.

Erdigunerako ludoteka berriua Olibeten

Egun Oarso eraikinean kokatuta dagoen Ludoteka Olibeteko Koldo Mitxelenaren ondoko parkearen parean kokatuko dugu, egun Oarsoaldeak bulegoan dituen tokian. 6-12 urte bitarteko erdigunerako haurrei Olibeten kokatuta egongo den espazio berriua honetatik emango zaio.

Beraungo igerilekuan bestelako jardueretarako kirol eremu bat sortzea, urte osoan zehar erabili ahal izateko

Beraungo igerilekuaren eremuan eraikigarria den partzela bat dagoela baliatu nahi dugu bestelako kirol-jarduerak egiteko ekipamendu berri bat irabazteko. Igerilekua ez bezala, eraikitzen den eremu berri hau urte osoan zehar erabiltzekoa litzateke.

Kaleko kirol azpiegitura berriak: eskalada, kirol urbanoak...

Arramendi parkea osatzen duten espazioen definizioa ikuspegi integral batetik landuz, Arramendin kirol gune ireki berri bat zehaztea aurreikusten da. Kirol-espazio irekiak zabaltzeko proposamena beste eremu batzuetara ere zabaltzea aurreikusten dugu.

Kultur egonaldiak ahalbidetzeko erresidentzia

Herriak kulturarekin lotuta duen bizitza dela eta, sortzaile eta artista ugari izaten ditugu herrian, kasu batzuetan, egunetako egonaldiak egiten dituztenak. Egun, udalak, behar horientzako pisu bat duen arren, pisua motz geratzen da dauden behar guztiak asetzeko. Udalak erdiko kalean errosia duen eraikina, egonaldiak egin ahal izateko erresidentzia gisa birgaituko dugu. Modu osagarrian, oro har, herrian dugun eragiletzaren bidez jasotzen diren aldi baterako bisitentzat ere erabilgarria izango da.

HERRI KOHESIONATUAGOA

Dinamika aberatsagoarekin

Jangela garaiko eskolaz kanpoko ekintzetan zerbitzu publikoa txertatu

Ikastetxeen guraso-eskolen gain geratzen den jangela-garaiko eskolaz kanpoko ekintzen eremuaz udala arduratzea da proposamena, betiere, egingo den eskaintza ikastetxeekin eta guraso-elkarteekin beraiekin elkarlanean landuz.

Listorretako aisialdi gunea aktibatzea ikuspegi hezitzaile batetik

Bereziki uda partean famiientzako aisialdi-eremu garrantzitsua denez, hezitzailea eta euskararen ardaztua izango den kultur-, kirol- eta aisia-programazioa landu eta garatuko dugu.

Auzo bihotzak indartu

Herri biziak bere isla izan behar du auzo guztien gutxieneko dinamismoan. Auzoen antolaketa-urbanoak bezainbesteko garrantzia du, auzo-eragileen inplikazioak eta udal-eskaintzaren (kultura, kirola, aisia...) presentziak. Horiek guztiak uztartuz bermatuko dugu auzo guztien bizigarritasuna.

Herritar txartela

Edozein tramite, edozein udal-zerbitzutarako sarbidea (errolda, kiroldegia, hondakinen kudeaketa...) emango duen udal-txartel bakarra jarriko dugu martxan.

Identitate digitala: errenteria.eus

Errenteria.eus domeinuari lotutako helbidea eskaintzea herrian erroldatuta dagoen bizilagun orori, bizi garen tokiaren erakusgarri, zerbitzu ematearekin batera, herri-identitatean ikur izan daitekeena.

Zerbitzari publikoa

Herriko eragileek udal-lokalak lagatuta dituzten modura, euren dokumentazioa gordetzeko udal-zerbitzariak erabiltzeko aukera izango dute udalak euren zerbitzura jarriko dituen zerbitzari publikoei esker.

Euskararen kale erabilera sustatzeko estrategia berriak identifikatu

Gure herrian euskararen ezagutza inoiz baino handiagoa den honetan erabilerarako jauzi segurua eta eroso ahalbidetzeko unea da. Onartu berri den Euskararen Plan Estrategiaren bultzadarekin, hitzarmen berri bat landuko dugu herriko eragile guztiak inplikatuko dituen.

Kirol eta kultur eragileen jardunean euskararen erabilera sustatzeko bidelaguntza

Euskararen inguruan landu nahi dugun hitzarmen berriaren baitan, ezinbestekoa dugu aisidiaren eremuan euskarari bestelako erdigune bat aitortzea. Kirolaren eta kulturaren arloko eragileei bidelaguntza indibidualizatua eskainiko diegu, euren premia eta baldintzen arabera tresnak garatze aldera.

HERRI BIZIGARRIAGOAK

Auzo biziagoak

Beraun plana: Merkataritza plan berezia

Erdigunea, Iztieta eta Beraun dira gure merkatal-eremu garrantzitsuenak eta etorkizunean izan daitezen ere, estrategia berezitua behar dute. Lokal hutsak berrerabiltzea, establezimenduen eraldaketa, hiri-berriztapena, dinamizazioa... aurreikusiko dituen plan berezia diseinatu eta martxan jarriko dugu. Auzoa biziberritzeko bestelako urbanizazio eta birgaitzeen osagarri izango da.

Iztieta-Ondartxo plana: Hiltegia eraberritzea eta merkataritza plan berezia

Beraungo merkatal-eremuak bezalaxe, Iztietak bere merkataritza-plan berezia behar du herriari eta auzotarrei auzo dinamikoa eskaini diezaien. Horrez gain, Ondartxon kokatuta dagoen Hiltegia birgaituko da eta, bertan, Hibaika Arraun Elkartek egoitza berri, modernoa eta kapazitate handikoa edukitzeaz gainera, inguruko bizilagunek espazio komunitario berri bat izango dute, auzoaren dinamismoan eta auzotarren ongizatean eragingo duena. Bestalde, Altzate auzoa erakitzeko prozesuak bultzada garrantzitsua izango du, ibaiaren beste aldean espazio publiko aberatsa, aparkaleku parkea handitzea eta ekipamendu publiko garrantzitsua ekarriko dituelarik.

Galtzaraborda plana: parkea eraldatzea

HAPOn txertatu den auzo-bihotzen logika garatuz, Galtzaraborda auzoarentzako erreferentziazkoa eta kalitatezkoa izango den erdigune bat berrasmatuko dugu, gaur egun parketa eta Pio Baroja eraikina dagoen eremuan. Herritarrentzako atsegina, gustagarria eta eragileentzako topaleku izango den espazio-eremua eraikiko da, gaur egungo espazioa berrasmatuz.

Agustinak: lanbide sortzaileen poloa martxan jartzea

Eraikina birgaituta, lanbide sortzaileen poloa martxan jartzea unea da. Agustinak proiektuak batzen ditu tokiko garapenari ekarpena, herriak sorkuntzarekin duen lotura indartzea eta artisautzarekin izan duen loturaren aitorta. Gainera, Agustinak auzoaren bizigarritasunari ekarpena egitera dator eraikina, auzoarentzat parke eder bat dakarrelako berarekin.

Torrekua berria, alde zaharrean: teknologia libreak + ekonomia soziala

Lanbide sortzaileak Agustinak proiektura eramatearekin batera, Torrekua teknologia eta ekonomia soziala uztartu nahi dituzten proiektuen habi izango da, era horretako proiektuak biltzen dituen TEKs elkartearen kudeaketapean.

Erdiguneko alamedaren eraberritzea lantzeko ideia lehiaketa

Alameda herriko bihotz garrantzitsuetako bat da. Espazioak ordea zenbait jarduera garatzeko aukera berriak lantzea eskatzen du. Horretarako Alamedaren eraberritzerako ideia lehiaketa parte hartzailea jarriko dugu martxan.

HERRI BIZIGARRIAGOA

Jasangarriagoa

Berdeguniak zabaldu eta espazio publiko atseginagoak sortu, ondarea balioan jarri

Arramendiko parte publikoan erabilera desberdinak aurreikusi eta ahalbidetuko dituen espazioen birdefinizio bat ezinbestekoa da, beseak beste, Arramendiko gotorlekuan egindako aurkikuntza arkeologikoei balio emanez, Horrez gain, kalitate handiko hiru eremu natural garrantzitsu irabaziko ditugu hiri-eremuan: Barandiaran parkea, Gamongoa parkea, eta Altzateko ibai-bazterra.

Aparkaleku berriak Olibeten eta Altzaten

Bi aparkaleku publiko garrantzitsu gehituko dizkiogu gure aparkaleku-parkeari: Olibeten, Adifeko lurretan eraikiko dena, eta Altzaten eraikiko dira. Guztira 400dik gora plaza, modalitate desberdinetan erabili ahal izango direnak, hiri-barnean autoz sartzea ekidin eta intermodalitatea sustatu nahi dutenak.

Igogailu berriak, Pontika-Luis Mariano eta Urbia-Igantzi

Agintaldi honetan Pontika eta Beraungo Luis Mariano plaza eta Galtzarabordako Urbia plaza eta Igantzi auzoa lotuko dituzten igogailuak eraikiko ditugu, oinezkoen ibilbideak sustatu eta irisgarritasun unibertsala hobetzeko asmoz.

Bizikletaren erabilera sustatu: aparkaleku estaliak, bizikleta publikoak, erosteko dirulaguntzak

Orografikoki bizikletaz ibiltzeko herri erraza ez dugun arren, bizikletaren erabilera sustatzea osagarri da bestelako mugikortasuna sustatzeko estrategian. Aparkaleku estaliak, bizikleta publikoak (herri arteko hitzarmenak tarteko) eta bizikletan elektrikoak erosteko dirulaguntzak jarriko ditugun martxan.

Peñafloridako kondearen plaza eta alde zaharra lotu, harresia balioan jarri eta alde zahararentzako egoteko tokia irabazi

Astotokiak, alde zaharrea urria den espazio ireki interesgarria eskaintzen duen arren, azpierzarria dago, kokapenarengatik eta irisgarritasunarengatik. Pasabide eta egoteko eremu izan dadin birgaituko dugu, etorkizuneko Fini Rubio eraikinarekin zuzenki lotuz. Gainera, egungo Oarso eraikinaren ondoan ordenaziotik kanpo dagoen eraikina erantsiz alde zaharrak duen harresi interesgarria balioan jartzen segiko dugu.

Energia-soluzioak, berriztagarriak eta komunitarioak

Berriztagarrietan oinarritutako energia-soluzioak behar ditugu, Udalaren konpromiso eta esku hartzeetatik bezainbeste, komunitatearen inplikazio eta partaidetzatik etorriko direnak. Klimaren eta Energia Jasangarriaren Aldeko Planaren baitan, energia-komunitateen sorrera sustatu eta haietatik eratorritako proiektuak gara daitezzen baldintzak bermatuko ditugu.

Oiartzun ibaia: o isurketa

Herrian bertan espazio naturalez gozatzeko aukerak zabaltzeko garaian giltzarri da ibaiaren ertza eta bere berreskurapena. Isuriak o izatera iritsiko gara agintaldi berrian.

Hondakinen bilketa-politika: ekoizle handien eta altzarien bilketa hobetu

Birziklatzen eta berrerabiltzen badugu zer hobetu eta urrats berriak ematen jarraitu behar dugu. Agintaldi honetan bi hobekuntza garrantzitsu egingo ditugu: ekoizle handiei bilketa erraztu eta etxeetako altzarien bilketa hobetu: etxeetako ateraino iritsiz eta jasotzen diren altzariei bigarren bizitza emanez.

Elikadura subirautza. Landa-eremuko plan berezia

Hiri-eremuak bezalaxe, landa-eremuak ezinbestekoa du bere plan propioa, landu-eremua babesteaz gainera, lehen sektorearen garapena bermatu nahi badugu eta elikadura subirautzan aurerra egiteko egiteko ezinbestekoa zaigu lehen sektoreko ustiaketa ahalbidetzea, ezagutarazten lagundu eta merkaturatzeko bideak zabaltzea.

Kotxe elektrikoak partekatzeko zerbitzu publikoa

Mugikortasun jasangarriago baten bidean zerbitzu publiko berri bat jarriko dugu martxan. Auto elektrikoen parke publiko bat sortuko dugu eta horiek herritarren eskura jarriaz, bestelako mugikortasun eredu baten bidean pausoak emango ditugu.

HERRI BIZIGARRIAGOA

Seguruagoa

Herri-gunea eta auzo-bihotzak oinezkoentzako babestu

Herrien bizigarritasuna zuzenki lotuta dago oinezko mugikortasunarekin, oinezko mugikortasunak bermatzen baititu osasuna, harremanak eta tokian tokikoa ezagutu eta balorategia. Horretarako, oinezko mugikortasuna bermatzeko baldintzak sortu behar dira: parkin disuasorioak, garraio publikoa, igogailuak, autorik gabeko oinezkoentzako eremu zabalak, erdigunean, zein babestu nahi ditugun auzo-bihotzetan.

Bizikidetzaren inguruko herri-hitzarmena

Bizikidetzaren ordenantzen inguruan herriko eragileekin egindako prozesuak erakutsi digu bizikidetzaren zailtasunak duten jokabideak aldatzeko sentsibilizazioaren eta heziketaren esparruan egin daitezkeen bidean sinisten dugula. Horretarako tresna izan daitezkeen herri-hitzarmen bat garatuko dugu.

GOBERNANTZA

Landa-eremuko zinegotziaren figura

Landa-eremu zabala du gure herriak, ezaugarri eta premia propioak eta garapen-beharrak dituena. Landa-eremuaren bizi diren herritarrekiko/eragileekiko harremana eta behar espezifikoak modu berezituak landuko dituen zinegotziaren figura sortuko dugu, modu transbertsalean landa-eremuko esparru desberdinetako beharrei erreparatuko diena.

2040, etorkizuneko herri-proiektua

Errenteria 2025 Plan Estrategikoa agortzen den honetan, etorkizun hurbilak berarekin dakartzan erronken inguruan kolektiboki pentsatu eta desio dugun herri-proiektua definitzeko prozesua zabaltzera goaz. Gogoeta, antizipazioa eta aktibazioa hitz-gako izango dira.

Auzo-elkarteen lan-mahaia

Bi urtez behin auzotarrekin elkartu, haien eskaerak jaso eta egindakoaren deskargua egiteko dinamikan, urrats berri bat emango dugu. Aurrekontu partida bat jarriko dugu auzo-elkarteen eskura, auzoek adierazi dituzten premietatik abiatuta, lehentasunak zein izango beharko liratekeen deliberatzeko.

Agintaldirako Planaren segimendurako Herri Behatokia

Agintaldirako Plana den Gobernu Taldearen gestio-tresna nagusia ausaz hautatutako herritarrekin partekatu, garapen-maila zein den azaldu eta haien ekarpenak jasotzeko dinamika da Herri Behatokia, modu pilotuan martxan jarri ondoren, egonkortu nahi duguna. Agintaldiaren erdian gauzatuko dra.

Herri-izena: deliberazio-foro baten sorrera

Herri-izenaren inguruko sentsibilitate eta arrazoiketa desberdinei leku egin, elkarrizketa pausatua ahalbidetu eta gehiengo handi baten borondateak aseko dituen erabakia hartzeko prozesua zabalduko dugu, deliberazio-foro gisa ezagutzen diren metodologia baliatuta: ausazko partaidetza, adituen iritziak, denbora eta prozesu-gidari profesionalak.